

Belodromotik ikasgeletara telematikoki

SERGIO BASURKO

Bigarren urtez jarraian, Donostia International Physics Center (DIPC) erakundeak eta Euskadiko Filmategiak, Donostia Zinemaldiarekiko lankidetzari esker, ikastetxeetarako film bat programatu dute, Belodromoa Ikastetxeetan ekimenaren bitartez. Oraingo honetan, *Harrapatu bandera* da hautaturiko filma, eta sei eta hamaika urte bitarteko Gipuzkoako ehunka ikasleek gozatu ahaliko dute euren ikastetxeetan, euskarara bikoiztuta.

Covid-19aren pandemiak belodromoa zinema-areto erraldoi gisa erabiltzea galarazi du, eta horregatik, aurreten, salbuespen gisa, ikasleentzako emanaldiak ikasgeletara eramango dituzte. Hala ere, orain Belodromoa Ikastetxeetan deritzon jarduerak bere mamiari eutsiko dio eta zinemaren eta zientziaren magia uztartuko ditu berriro, NASArako eta Stanford Unibertsitaterako lan egiten duen Eneko Axpe fisikari euskaldunak bideoz grabatutako aurkezpena izango baitu.

Hain zuzen ere, Enrique Gatok zuzendutako *Harrapatu bandera* animaziozko film luzeak hamabi urteko mutiko bat du protagonista, Mike, astronauten semea eta biloba, zeinak beti amestu izan duen "harrapatu bandera" jokoan irabaztea. Bere fa-



Harrapatu bandera.

milia adiskidetzeko, historiako banderarik esanguratsuena harrapatu beharko du: astronautek Apollo 11 misioan Ilargian ipini zutena.

Zientziaren irudi positiboa transmititzeko, Eneko Axpek filma aurkeztuko du, NASAn izandako esperientziak hitz egingo du eta, ondoren, ikasleek galderei erantzun die geroagoko hitzordu batean. Gainera, saioaren argazki bat edo landutako gaiarekin lotutako marrazkiak eta esku-lanak partekatzea animatuko dira ikasleak.

Donostia International Physics Center fisika eta antzeko diziplinak ikertzeko nazioarteko zentroa da, eta, gainera, ezagutza zientifikoa gizartearekin partekatzeke ardura hartzen du bere gain. 2019an, 27 ikastetxetako 13.000 ikasle inguru bildu zituen Belodromoko saioetan. Gainera, 2018az geroztik eta urteko lehen hiruhilekoan, Euskadiko Filmategiak, DIPCK eta Zinemaldiak zinema eta zientziako ziklo bat antolatzen dute Tabakaleraan, helduei eta Batxilergo

goko ikasleei zuzendua. Ziklo horren programan, kultura zinematografikoa eta zientifikoa transmititzea helburu duten filmak, eztabaidak eta dibulgaziozko hitzaldiak bildu ohi dira, gaur egun nazioarteko 4.000 zientzialarik baino gehiagok lan egiten duten hiri batean; izan ere, zifra horren arabera, Europan biztanle bakoitzeko zientzialari gehien dituen hirietako bat da Donostia. Horrek agerian uzten du zinemako hiria izateaz gain, Donostia zientziako hiria ere badela.



Euskaldun bat NASAn

Eneko Axpe (Barakaldo, 1986) NASAn lan egiten duen lehen fisikari euskalduna da, eta Stanford Unibertsitatean (Kalifornia) ere egiten du lan, zehazki, biomaterialen esparruan. Aeronautika eta Espazioaren Agentzia Nazionalan (NASA), Axpek ikertzen du nola aldatuko liraketeen astronauten hezurragabitaterik gabe, Martitzera-ko epe luzerako espazio-bidaia baten testuinguruan. Zientzian lan egiteaz gain, artista ere bada Axpe: film laburren zuzendaritza ikasi du eta konpositorea ere bada, bereziki hip hopekoa eta musika elektronikokoa.

Cooperación
Española



CINE DESARROLLO SOSTENIBILIDAD



MINISTERIO
DE ASUNTOS EXTERIORES, UNIÓN EUROPEA
Y COOPERACIÓN

aecid

Cooperación
Española